



Fedeafes

Buru gaixotasuna
duten pertsona
eta senide elkarteen
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas
con enfermedad mental

IKERKETAREN ONDORIOAK

BURU OSASUN ARAZOAK EAEko

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ARTEAN



BEHARREN ETA ARRETA-BALIABIDEEN AZTERKETA



elkarteen laguntzarekin
egindako azterlana.

Babeslea:



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

2021eko iraila.

FEDEAFESek AGIFES, ASAFES, ASASAM eta AVIFES elkarten laguntzarekin egindako azterlana.

EDE Ezagutza-ren (EDE Fundazioa) laguntza teknikoarekin.



Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarten Euskadiko federazioa (FEDEAFES)

Tres Cruces 14, behea eskubitara. • Artza poligonoa • 01400 Laudio – Araba

www.fedeafes.org • fedeafes@fedeafes.org

Lege-gordailua: BI 01632-2021



Fedeafes

Buru gaixotasuna
duten pertsona
eta senide elkarten
Euskadiko federazioa

Federación de Euskadi
de asociaciones de
familiares y personas
con enfermedad mental

Aintzatespena – Ez-komertziala (by-nc): obra deribatuak sortzea baimentzen da, betiere erabilera komertziala egiten ez bada. Era berean, ezin da jatorrizko obra helburu komertzialekin erabili.

BALIABIDEEN ESTALDURAREN BALORAZIOA, IDENTIFIKATUTAKO BEHARREN ARABERA

AURKEZPENA ETA EMAITZA NAGUSIAK

Azterlan hau EAera mugatzen da, eta buru osasuneko arazoak dituzten haurren (0-9 urte), nerabeen (10-18 urte) eta gazteen (19-30 urte) beharrak aztertzen ditu, baita pertsona horien familiartekoenak ere.

Azterlan honen oinarrian dagoen metodologia kualitatiboa da, eta, horri esker, aztergaiaren konplexutasunari hausnarketa-ikuspegi batetik heldu ahal izan diogu. Egindako ikerketaren balioa errealitate berari buruz hiru eragilek egin dituzten balioespenak triangelatu ahal izana da; adituen eta profesionalen, familien eta buru gaixotasuna duten gazteen ikuspegiak hartu dira kontuan:

- Elkarrizketak eta mintegia psikiatriaren, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen, elkartearen eta abarren esparruko **24 adituekin**.
- Eztabaida-taldea, hiru lurralde historikoetan buru osasun arazoaren bat duten seme-alabak dituzten **11 seniderek**in.
- Eztabaida-taldea, Bizkaian eta Araban buru osasun arazoak dituzten **19 eta 34 urte bitarteko 7 gazterekin**.

DATU AIPAGARRIENAK

- 2018an, EAEOLEk jakinarazi zuen **antsietate- eta depresio-sintomen prebalentzia** % 7,8koa zela 15 eta 24 urte bitarteko nerabeen eta gazteen artean. EAEn, emakumeen artean, prebalentzia % 11koa zen, eta gizonen artean, berriz, % 4,7koa.
- Eustaten arabera, 2020an EAEn bi adingabe (suizidio guztien % 1,1) eta **20 eta 29 urte arteko zazpi gazte** (guztien % 3,8) hil ziren arrazoi horregatik; hau da, suizidioen % 5 inguru 29 urtetik beherako gizon eta emakumeen artean gertatu zen.
- 2015 eta 2020 bitartean, 29 urtetik beherako 76 pertsona hil dira EAEn **bere buruaz beste egiteagatik edo euren buruari eragindako lesioengatik**, EUSTATEN arabera. Hain zuzen,aldi horretan gertatutako suizidio guztien % 7,5 dira (% 5,7 gizonei dagokie). Gainera, suizidio guztien kopurua % 10,2 hazi da, 2015ean 167 izatetik 2020an 184ra izatera.

- Kontsultatutako adituek adierazten dute buru osasuneko arazoaren bat duten haur eta gazteen profila gero eta gazteagoa dela eta gero eta arazo larriagoak dituela. Gainera, ikastetxeetatik gero eta kontsulta gehiago jasotzen dituzte **9 urtetik beherako neska-mutilen buru osasunaren inguruan**.
- CISen ikerketa baten arabera, bi gurasotatik batek **aldaketa larriak** identifikatu ditu seme-alaba adingabeen nortasunean **2020an zehar**. Era berean, adingabeen aldarrearen asalduretan sakonduz, ikerlanetik ondoriozta daiteke % 76,4 suminkorrango agertu dela, % 44,8 tristeago, % 36,1k erraz negar egin duela, % 54,8k egonezin gehiago sentitu duela, % 43,3k umore aldaketa etengabeak izan dituela eta % 60k urduritasun eta antsietate handiagoa izan duela.
- Gainera, **18 eta 24 urte bitarteko gazteak izan dira pandemiaren ondorioz eragin psikologiko handiena jasan dutenak**: % 42,8k negar egin du egoera horren ondorioz, % 30,3k antsietate- edo izu-atakeak izan ditu, % 44,2 senide edo gertukoren bat hilko denaren beldur izan da, % 15,4k bakarrik edo bakartuta egoteko beldurra izan du, % 24,5ek arnasketa-falta sentitu du eta % 16,8ak zorabioak izan ditu.
- Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Unitateko **nerabeen ospitaleratze psikiatrikoak ia % 50 igo dira** 2019ko lehen bost hilabeteetan, 2021eko lehen bost hilabeteekin alderatuz.

BURU OSASUNeko ARAZO NAGUSIAK HAURTZAROAN

Haurren eta gazteen buru osasunaren arloan, garrantzi handieneko arazoetako bat **garapenaren nahasmendu orokortuei dagokie**. Gaur egun, **portaeraren nahasmenduak** ere hazten ari dira, baita lotura afektiboarekin erlazionaturikoak ere.

Gainera, haur eta nerabeen artean, **generoaren eta adinaren arabera prebalentzia handiagoa edo txikiagoa duten beste nahasmendu mota** batzuk daude. Gehien diagnostikatzen den garapen-faseko arazo kronikoetako bat da **arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua**.

Iturri berberak adierazten dute **adin txikikoen %5 inguruk** garatzen dutela beren jokabideari eta portaerari eragiten dien nahasmendu hori, batez ere 8 urtetik 16 urtera bitarteko etapa kritikoan. **Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak** eragin handiagoa du haurrengan, eta lotura handia du afektibitate-nahasmenduekin, antsietate-nahasmenduekin eta abarrekin.

Nahasmendu emozionalen artean, adingabeen sintoma ohikoenak **gatazka emozionalen ondoriozko somatizazioak** (digestio-arazoak, zefaleak, arazo dermatologikoak, etab.) **eta antsietatea, depresioa, isolamendua eta fobia soziala dira.**

BURU OSASUNeko ARAZO NAGUSIAK NERABEZAROAN ETA GAZTAROAN

Buru osasuneko arazoak dituzten nerabeen eta gazteen artean, **jokabide-nahasmenduak nabarmentzen dira**, haur eta gazteen ospitaleratze-unitateetan sartzeko arrazoi nagusietako bat baitira.

Jokabide-nahasmenduak dira baliabide gehien behar dituzten patologietako bat, **autismoa edo eskizofrenia** bezalako beste nahasmendu batzuen gainera. Osasun mentaleko arazoak dituzten nerabeek eta gazteek ere pertsonalitateko patologia, **depresioa edo desorekak** izan ditzakete buru gaixotasunen eta patologia dualen ondorioz.

Emakume nerabe eta gazteek gizonen baino maizago izaten dituzte **elikadura-portaeraren nahasmenduak**, hala nola anorexia nerbiosoa eta bulimia, bai eta mugako nortasun nahasmendua ere, eta horiek suizidio-saiakerak eta autolesioak dakartzate maizago.

Aldeak hain nabarmenak ez badira ere, **gizon nerabeek eta gazteek jokabide-arazoak dituzte maizago**, baita drogen kontsumoak eragindako osasun mentaleko arazoak ere.

Azkenik, aipatu behar da **depresioa edo psikosia** berdin agertzen direla gizon eta emakume nerabe eta gazteen artean.

COVID-19 KORONABIRUSAK BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN HAUR, NERABE ETA GAZTEEN NAHIZ HAIEN FAMILIEN OSASUN MENTALEAN DUEN ERAGINA

Pandemiaren ondorioz, osasun-zentro eta elkarteetan nabarmen ari da hazten adingabeen eta buru osasuneko arazoak dituzten gazteen kopurua. Horien artean, aipagarrienak:

- **Elikadura-nahasmenduen eragina handitzea:** Kontsultatutako aditu batzuen arabera, itxialdian hirukoiztu egin dira elikadura-nahasmenduak, batez ere emakume nerabeen eta gazteen artean.
- **Bulkada-arazoaren eta autokontrolaren galararen eragina handitzea.** COVID-19ren pandemiak sortu duen giro-tentsioaren ondorioz, areagotu egin dira autolesionatzeko beharrek edo suizidioarekin lotutako pentsamenduak inpulsiotasun-arazoak eta kontrolik eza dituzten nerabe eta gazteen artean.
- **Trauma-osteko sintomen intzidentzia handitzea.** Pandemiaren gora egin duen beste arrazoi bat bizitzan zehar egoera traumatikoei aurre egin behar izan zieten adingabeekin lotuta dago, hala nola eskola-jazarpenarekin, gatazka larriekin (familiako patologia, abusuak, tratu txarrak, zabarkeriak, etab.).
- **Buru osasuneko arazoak, aurrez aurreko eskoletara itzultzean.** Ikasgeletara itzultzea erronka handia izan da buru osasuneko arazoak dituzten eta itxialdian lasaitasun handiagoa eta kanpo-presiorik eza izan duten neska-mutil nerabeentzat. Zehazki, antsietateak, depresioak eta segurtasunik ezak eragina izan dute nerabe eta gazte askorengan ikasgeletara itzultzerakoan, itxialdian beren buru gaixotasunaren sintomak arindu direla ikusi baitute.
- **Pantailen erabilera gehiegi areagotzea.** Nerabeek eta gazteek pantailak (telebista, bideo-jokoak, ordenagailua) itxialdian zehar eta ondoren gehiegi erabili dituztela egiaztatu da. Askorentzat ihesbidea izan da pandemiak sortutako larritasunaren aurrean, eta, ondorioz, isolamendura zaugarri bihurtzeko arriskua dago, baita harreman sozialetan urrun egoteko ere.
- **Isolamendu soziala.** Pandemiaren aurretik, gizartezatzearen alde lan handia egin duten nerabe eta gazteak, itxialdiaren ondoren, atzerapen handia izan dute kalera ateratzeko nahari dagokionean; etxean isolatu dira eta gizarte-lotura hori ahuldu egin da.

ANTZEMANDAKO BEHARRAK

1. Buru osasun arazoa duten haur, nerabe eta gazteentzako baliabideen balorazioaren laburpen-taula, beharren arabera:

BALIABIDEEN IRISMENAREN ETA ESTALDURAREN BALORAZIOA, NESKEN, NERABEEN ETA GAZTEEN BEHARREN ARABERA		
ESPARRUA	BEHARRAK	BALIABIDEEN BALORAZIOA
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Etengabeko arreta behar da, kasu bakoitzari eta emozio-eta ingurumen-testuinguruari egokitutako jarraipena eginez. • Hurrek, nerabeek eta gazteek entzute enpatikoa eta hurbila behar dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-sistema publikoaren etengabeko arreta hobetzeko modukoa da. • Buru osasunaren arretarako baliabideen kokapena zentralizatuegia dago. • Espezializazio gutxi dago haur eta gazteen buru osasunaren arloan. • Profesionalen prestakuntzak iraunkorra izan behar du, eta haur eta gazteen arretan espezializatuta egon behar du.
	<ul style="list-style-type: none"> • Laguntzak behar dira, ez bakarrik une oso kritikoetan. • Osasun- eta gizarte-beharrak aldi berean kontuan hartzen dituzten esku-hartzeak behar dira; ez aritu bi sistemak loturarik izango ez balute bezala. • EAEn egonaldi ertain eta luzeko ospitaleratzeak ahalbidetzeko tresnak behar dira, larritasun handieneko kasuei erantzuteko. • Patologia dualaren kasuetan, esku-hartze espezifikoak behar da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Bitarteko baliabide gehiago behar dira, ospitaleratze psikiatrikoa prebenitzeko gailu gisa funtziona dezaten. • Larri daudenak ospitaleratze osasun-baliabideak saturatuta daude lurralde batzuetan. • Gizarte-zerbitzuen arloko baliabideak erabiltzen dira buru osasuneko sareko gabeziak konpontzeko. • Ez da jendea bideratzen buru osasuneko saretik buru osasun arazoa duten pertsonen eta familien elkarreterara. • Ez dago baliabide soziosanitario berezirik adingabe koentzat eta gazteentzat. • Buru osasun arazoa duten 6 urtetik gorako hurrek, arreta goiztiarreko baliabideak uzten dituztenean, ez dute baliabide soziosanitario intentsibo eta espezializaturik nerabegarora arte. • Ez dago behar adina baliabide espezializaturik patologia duala duten nerabe eta gazteentzat.
	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egun egiten direnak baino laguntza psikologiko gehiago behar da (esku-hartze terapeutikoak). 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-sistema publikoan ez dago hurren, nerabeen eta gazteen nahasmenduak ikuspegi terapeutikotik lantzen dituzten psikologo nahikorik. • Arreta eta akonpainamendu psikosozialeko tresnak bultzatu behar dira.

BALIABIDEEN IRISMENAREN ETA ESTALDURAREN BALORAZIOA, NESKEN, NERABEEN ETA GAZTEEN BEHARRAREN ARABERA		
ESPARRUA	BEHARRAK	BALIABIDEEN BALORAZIOA
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> Bermatu behar da helduen buru osasuneko baliabideetara igarotzea ez dela traumatikoa izango adin-nagusitasuna betetzen duten pertsonentzat. 	<ul style="list-style-type: none"> Haur-psiatriako baliabideetatik helduenetara pasatzea malkartsuegia da, eta ez da formularik aurreikusten 18 urte betetzean trantsizio hori errazteko.
	<ul style="list-style-type: none"> Suizidioen errealtateari aurre egin behar zaio. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da baliabide nahikorik inbertitzen buru osasuneko arazoak prebenitzeko.
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza-arloan buru osasun arazoekiko sentsibilitatea eta enpatia beharrezkoak dira. Arreta berezia jarri behar zaie buru osasun arazoak dituzten eta isolatu, baztertu eta isekak jaso ditzaketan adingabeei. 	<ul style="list-style-type: none"> Hezkuntza-arloko profesional guztien prestakuntzan aurrera egiten jarraitu behar da. Hezkuntzako profesionalen-plan zehatzetan jaso behar da. Buru osasunean adituak diren erreferenteak falta dira ikastetxeetan eta Berritzeguneetan. Irakasleek eta, oro har, hezkuntza-komunitate osoak buru osasunaren inguruan duten sentsibilizazioa hobetu daiteke. Ikastetxe eta prestakuntza-zentro guztiek ez dute lehentasunezko zat jotzen osasun mentalean sentsibilizatzea.
	<ul style="list-style-type: none"> Ibilbide estandarren erritmoari jarraitu ezin dioten pertsonen eskola-atzerapena saihestu behar da. 	<ul style="list-style-type: none"> Kasu guztietan ez dira adin txikikoen eta buru osasun arazoak dituzten gazteen beharretara egokituako ibilbide malguak eskaintzen.
	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeetan gerta daitezkeen krisiei, agerraldiei eta bestelako larrialdi-egoerei erantzun eraginkorra eman behar zaie. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago psikologorik ikastetxe publikoetan.
	<ul style="list-style-type: none"> Portaera-arazoak dituzten pertsonen laguntza espezializatua behar dute. 	<ul style="list-style-type: none"> Ez dago behar adina gizarte- eta hezkuntza-baliabide adingabeentzat eta buru osasun arazoa duten gazteentzat.
	<ul style="list-style-type: none"> Beharrezkoa da ikasgeletan giro emozionalaz arduratzea eta ikasleen ongizate emozionalari arreta berezia eskaintzea, horrek zenbait kasu goiz atzematen lagun baitezake. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgeletako heziketa emozionaleko lana hobetu daiteke.

BALIABIDEEN IRISMENAREN ETA ESTALDURAREN BALORAZIOA, NESKEN, NERABEEN ETA GAZTEEN BEHARRAREN ARABERA		
ESPARRUA	BEHARRAK	BALIABIDEEN BALORAZIOA
Aisialdia eta denbora librea	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman sozial eta afektiboak izateko laguntza behar da. • Laguntza behar da familiaren lotura afektiboak zaintzeko. • Funtsezkoa da jarduera fisikoa, ludikoa eta kulturala sustatzea. • Aisialdiko jarduerak erabiltzaileen adinera egokitu behar dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • Monitoreek, boluntarioek eta aisialdiko eta denbora libreko arduradunek ez dute beti nahikoa informazio eta jarraibide izaten buru osasun arazoa duten haur eta gazteei arreta emateko. • Lagunak galduz gero, buru osasun arazoa duten pertsona- eta senide-elkarteen aisialdi-baliabideen berri eman behar da.
Etxebizitza eta enplegua	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoak dituzten gazteek etxebizitza eskuratzeko erraztasunak behar dituzte. • Kolektibo zaurgarrietako kide diren eta buru osasun arazoak dituzten gazteek beren bizitza independentea sustatuko duen ibilbidea behar dute. • Buru osasun arazoak dituzten gazteek beren behar ekonomiko eta psikosozialak asetzeko aukera emango dien lana behar dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoak dituzten gazteen emantzipazioa eta bizimodu independentea sustatzeko laguntza-baliabideak falta dira. • Helduarora iristen direnean, harrera-zentroetatik datozen gazteek ez dute beren autonomia eta independentzia bultzatuko duen baliabiderik. • Egoitza-baliabide espezifikoak falta dira buru osasun arazoa duten gazteentzat. • Pertsona horien enplegua sustatzeko baliabideak eta ekimenak ez dira nahikoak.
Justizia	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoak dituzten adingabeei judizializaziorik ez egitea. • Garrantzitsua da adingabeek eta neurri judizialak dituzten gazteek arreta terapeutikoa eta psikiatrikoa jasotzea. • Garrantzitsua da delituen biktima diren adingabeek eta buru osasun arazoa duten gazteek laguntza espezifikoa jaso ahal izatea esparru judizialek, hala behar dutenean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Neurri judizialak dituzten nerabeei ez zaie beti behar duten arreta psikiatriko eta terapeutikoa ematen. • Inbertsio handiagoa egin behar da adingabeek edo drogak kontsumitzearen ondorioz buru osasun arazoak dituzten gazteek eragindako delituen prebentzioan. • Sistema judizialak zailtasunak ditu buru osasun arazoak dituzten gazteak baliabide publikoetara bideratzeko bertan artatuak izateko. • Baliabideak gainezka daudenez, sistema judizialak, batzuetan, buru osasuneko sareari edo gizarte-zerbitzuei dagozkien kasuak hartzen ditu bere gain. • Sistema judizialak laguntza eman behar die gazteei eta beren buru osasunaren ondorioz zaurgarriak direnei.
Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasuneko arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteek buru osasunaren arloan programak, zerbitzuak eta gizarte-baliabideak behar dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoa duten gazteentzako gizarte-zerbitzuen zorroan dauden baliabideak zabaldu egin behar dira.

BALIABIDEEN IRISMENAREN ETA ESTALDURAREN BALORAZIOA, NESKEN, NERABEEN ETA GAZTEEN BEHARREN ARABERA		
ESPARRUA	BEHARRAK	BALIABIDEEN BALORAZIOA
Gizarte eta komunitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Estigma eta autoestigmaren aurka borrokatu behar da. • Beharrezkoa da komunikabideak eta ikus-entzunezko produkzioak buru osasunarekin sentsibilizatuta egotea. • Eskura dauden baliabide guztiei buruzko informazioa eskuratzeko modua hobetu behar da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago erakundeen inplikazio nahikorik buru osasun arazoa duten pertsonei buruzko gizarte-sentsibilizazioan. • Komunikabideek eta ikus-entzunezko ekoizpenek, batzuetan, estigmatizatu egiten dituzte buru osasun arazoa duten pertsonak. • Eskura dauden baliabideei buruzko informazioa eskuratzeko modua hobetu daiteke.

2. 4. Buru osasun arazoak dituzten seme-alabak dituzten familientzako baliabideen balorazioaren laburpen-taula, beharren arabera:

BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN SEME-ALABAK DAUZKATEN FAMILIENTZAKO BALIABIDEEN IRISMENAREN ETA ESTALDURAREN BALORAZIOA		
ESPARRUA	BEHARRAK	BALIABIDEEN BALORAZIOA
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek informazio gehiago behar dute dauden baliabideei, segi beharreko jarraibideei eta abarri buruz. esparru guztietan, ikuspegi orokorra eta etorkizunera begirakoa izan dezaten. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasunari dagokionez eskuragarri dauden baliabideei buruz familiei iristen zaien informazioa ez da behar bezain osoa.
	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek laguntza psikologikoa eta terapeutikoa behar dute. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-sistema publikoak ez du berariaz jasotzen familia horiei laguntza psikologikoa eta terapeutikoa ematea.
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek informazio gehiago behar dute hezkuntza-arloan dauden baliabideei, tresnei eta abarri buruz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Familiei hezkuntzaren arloan eskura dauden baliabideei buruz iristen zaien informazioa ere ez da behar bezain osoa.
	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek faltan botatzen dute hezkuntza-komunitatearen aldetik babes eta enpatia gehiago. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza-komunitateak familiei ematen dien laguntza hobetu egin daiteke.
Enplegua	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek zailtasun handiak dituzte buru osasun arazoa duten adingabeen zaintza eta lan ordaindua bateratzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago laguntza nahikorik ordaindutako lana eta zainketak bateratzeko.
Aisialdia eta denbora libre	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek atsedean hartzeko eta nork bere burua zaintzeko aukera izan behar dute, gehiegizko gainkarga-egoerak saihesteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago nahikoa atsedean-baliabide familientzat.
Soziala	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegi integral batetik, familiek informazioa, orientazioa eta laguntza etengabe behar dituzte. 	<ul style="list-style-type: none"> • Familiek ez dute behar duten informazioa, laguntza eta orientazioa jasotzen. • Ez dago baliabiderik buru osasun arazoak dituzten seme-alabak dituzten bikoteen lotura afektiboa zaintzeko.

BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN SEME-ALABAK DAUZKATEN FAMILIENTZAKO BALIABIDEEN IRISMENAREN ETA ESTALDURAREN BALORAZIOA		
ESPARRUA	BEHARRAK	BALIABIDEEN BALORAZIOA
Bestelakoak	<ul style="list-style-type: none"> • Garrantzitsua da banantze edo dibortzio gatazkatsuan dauden familiek laguntza espezifikoa izatea, buru osasun arazoak sor ez daitezen. • Lotura afektiboaren zainketa sustatzea funtsezkoa da. • Adopzio-familiek, askotan, egoera zailei aurre egin behar izaten diete, arreta berezia behar duten hainbat ezaugarriekin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasotasun positiboko programak indartu egin behar dira. • Estrategia terapeutikoen bidez guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa lantzeko baliabideak ere urriak dira.

3. Sistemen arteko koordinazioan atzemandako hobekuntzei buruzko laburpen-taula:

HAURREN, NERABEEN, GAZTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BURU OSASUNARI LAGUNTZEN DIHARDUTEN SISTEMEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA		
ESPARRUA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK	INPLIKATUTAKO SISTEMAK
Prebentzioa, detekzio goiztiarra eta Esku-hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoaren prebentzioan, detekzio goiztiarrean eta esku-hartzean hainbat ikuspegi integratuko dituen sistemen arteko hizkuntza komun baterantz aurrera egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoa duten pertsonek eta senideen elkarteak eta sistema guztiak.
	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-sistemaren eta hezkuntza-sistemaren artean prebentzio-programak sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasuna eta Hezkuntza
	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeetan goiz detektatzeko programak indartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak.
Baliabideei buruzko informazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Sistemen arteko topaketarako eta informazio-trukerako guneak eta buru osasun arazoak dituzten pertsonek eta senideen elkarteak sortzeko finantzaketa • Osasun sailaren eta gainerako sistemen arteko koordinazioa, haur eta gazteen osasun mentalaren arloan dauden arreta-baliabideak ezagutarazteko. • Deribazioak hobetzea. • Buru osasun arazoa duten pertsonek eta senideen elkarteekiko koordinazioa hobetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoa duten pertsonek eta senideen elkarteak eta sistema guztiak.

HAURREN, NERABEEN, GAZTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BURU OSASUNARI LAGUNTZEN DIHARDUTEN SISTEMEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA		
ESPARRUA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK	INPLIKATUTAKO SISTEMAK
Osasun-arloko arreta	<ul style="list-style-type: none"> • Psikiatriaren eta pediatriaren arteko koordinazioa hobetzea, lehen mailako arretatik bideratzen diren kasuetan. • Buru osasun arazoak dituzten gazteen bideratzea hobetzea adin-nagusitasunera iristen direnean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasuna.
Hezkuntza-arloko esku-hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun- eta hezkuntza-arloen arteko komunikazio handiagoa. • Hezkuntzaren eta buru-osasunaren arteko lankidetzarako esparru-dokumentua sendotzea. • Hezkuntzaren esku-hartzean osasunaren eta hezkuntzaren artean irizpide komunak hartzea. • Osasunaren eta hezkuntza-baliabide espezializatuen sarearen arteko koordinazioa indartzea • Osasunaren eta hezkuntzaren arteko koordinazioa, ebaluazio psikopedagogikoak egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasuna eta hezkuntza
Gizarte-zerbitzuen arloko esku-hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Osasunaren eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen arteko komunikazio-bide arinak ezartzea. • Buru osasun arazoak dituzten haur, nerabe eta gazte tutoredunekin lan soziosanitario intentsiboa egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasuna eta gizarte-zerbitzuak.
Etxebizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoak dituzten gazteei etxebizitza eta bestelako egoitza-baliabideak eskuratzen laguntzeko koordinazioa. • Erakunde arteko koordinazioa Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta udalekin, kolektibo horri etxebizitza eskuratzeko aukera emateko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza eta gizarte-zerbitzuak
Elkarteen esparrua	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoa duten pertsona eta senide elkarleen eta gainerako sistemen arteko etengabeko koordinazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Buru osasun arazoa duten pertsonen eta senideen elkarleak eta sistema guztiak.

ONDORIOAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ZEIN HAIEN FAMILIEN BEHARREI ERANTZUN HOBEA EMATEKO JARRAIBIDEAK

EREMU SOZIOSANITARIOA

- **Bitarteko baliabideen** kopurua handitzea, hala nola etxez etxeko laguntza, eguneko ospitaleak, kasu larriei aurre egiteko euste-egiturak eta tratamendu intentsibo espezializatuko programak, buru gaixotasunak larriagotu ez daitezen eta ospitaleratzea beharrezkoa izan ez dadin.
- Buru osasuneko sarean arazo larriak dituzten ospitaleratze psikiatrikoko **plazen** kopuru nahikoa bermatzea, bai eta egonaldi ertain eta luzeko egoitza-baliabideak ere, gaixotasun mentala duten haur, nerabe eta gazteentzat, babesgabetasun-egoeran dauden haurrentzat ez direnak.
- Psikiatrekin egiten diren **saioen maiztasuna handitzea** eta buru osasun arazoa duten haur, nerabe eta gazteen **segimendu jarraitua bermatzea**.
- Familiei jarraibide eta tresnei buruzko informazio gehiago ematea seme-alabak etxean artatu ahal izateko.
- **6 urte** bete ondoren, arreta goiztiarra utzi eta nerabearora iristen diren arte, gaixotasun mentala duten haurrak artatzeko baliabide soziosanitario espezializatuak abian jartzea.
- Baliabide espezializatuak abiaraztea **patologia duala** duten nerabeentzat eta gazteentzat, haien nahasmendua eta adikzioa modu intentsiboan landu behar den kasuentzat.
- Osasun-sistema publikoan **psikologo**en presentzia handitzea, haurren, nerabeen eta gazteen nahasmenduei modu terapeutikoan heltzeko.
- Haurren eta gazteen buru osasunaren arloan **espezializatze**ko programak sustatzea, haur-psikiatriako eta haur-psikologiako espezialitateen eta arlo horretako profesionalen etengabeko prestakuntzaren bidez.
- Pediatriako osasun-baliabideetatik helduen baliabideetara pausoa emateko **trantsizio-prozesuan** koordinazioa hobetzea.
- Gaixotasun mentala duten adingabeen eta gazteen familiek **eskura dituzten osasun-baliabideei buruzko informazioa** eskuratzeko modua hobetzea.
- Buru osasuneko arazoak dituzten seme-alabak dauzkaten familiei **laguntza psikologikoa eta terapeutikoa** eskaintzea.
- **Elkarteek** familiei eta haien seme-alabei eskaintzen dizkieten **baliabide soziosanitarioetara jendea bideratzearen alde** apustu egitea.

GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ESPARRUA

- Ikasleei zuzendutako buru osasun arazoaren **prebentzio**-ekintzetan inbertsio handiagoa egitea, eta arlo horri buruzko tailerrak, hitzaldiak eta topaketak sustatzea.
- Ikastetxeek beren **langileak osasun mentalaren inguruan prestatzen jarraitzen dutela** ziurtatzea, buru osasun arazoaren detekzio goiztiarra sustatzeko eta agerraldien edo krisi-egoeren aurrean esku-hartzen jakiteko, besteak beste. Ondoren, prestakuntza hori **ekintza-plan** zehatzetara eramatea, ikastetxe bakoitzaren errealitateari erantzuteko.
- Interesgarria litzateke osasun mentalean adituak diren erreferentziatzeko pertsonak egotea, irakasleei eta gainerako hezkuntza-komunitateari **laguntzeko eta orientatzeko**. Era berean, adingabeen eta ikasgeletako gazteen buru nahasmenduak eragindako krisi, agerraldi eta larrialdi-egoeren aurreko erantzunen eraginkortasuna hobetzen lagunduko luke.
- Buru osasunaren arloko **sentsibilizazio**-ekintzak abian jarri daitezke, irakasleei eta ikasleei zuzenduak, horrelako kasuekin duten enpatia hobetzeko. Horrela, inklusioa sustatu eta estigmatizazioa saihestuko da.
- Komenigarria litzateke prestakuntza-ibilbideak berrikustea, malgutu egin daitezen eta buru osasun arazoak dituzten adin txikiko eta adin nagusiko ikasleen berriarazko beharretara egokitu

daitezen, atzerapen akademikoak edo eskola uztea saihesteko.

- Osasun mentaleko arazoak dituzten adingabeen aurkako **bullying**-prozesuak prebenitu behar dira.
- Funtsezkoa da **hezkuntza emozionalaren** arloko lana indartzea, buru osasun arazoaren garapenean prebentzio-zeregin garrantzitsua izan baitezake.
- Komenigarria litzateke **gizarte- eta hezkuntza-baliabideak** sustatzea, hala nola eguneko zentroak, jokabide-arazoak dituzten adingabeekin, buru osasun arazoak dituzten gazteekin eta abar esku hartu ahal izateko esparru sozial eta pedagogikotik.
- Buru osasun arazoak dituzten seme-alabak dauzkaten familiengana iristen den **informazioa hobetu** egin behar da. Adibidez, eskura dauden hezkuntza-baliabide eta -tresnei buruz, bai eta askotan ezagutzen ez dituzten irakasleei buruz ere.
- **Baliabide eta plaza gehiago jarri behar dira hezkuntza-baliabide alternatiboetan**, hala nola aldi baterako enpresa-elkarteetan edo etxez etxeko eskolatzean, ezegonkortasun klinikoko uneetarako.

GIZARTE-HARREMANEN, AISIAREN ETA ASTIALDIAREN ESPARRUA

- **Aisia eta astialdiko entitateak** buru osasuneko arazoak dituzten haur eta gazteei laguntzeko prestatzea, batez ere senideen elkarrean eta buru osasun arazoa duten pertsonen laguntzarekin.
- **Buru osasun arazoa duten pertsonen eta haien senideen elkarrean eskaintzen dituzten aisialdi eta astialdi baliabideak sustatu eta sostengatzea**, gazteen integrazioa eta adiskidetasuna sustatze aldera.
- Horrelako zerbitzuak ematen dituzten pertsonen eta haien familien **elkarrean** lana babestea, euren iraunkortasuna bermatzeko.
- Buru osasuneko arazoak dituzten seme-alabak dauzkaten familientzako **atseden-baliabideak** eskaintzea, atsedeen hartzeko eta aisialdirako, haien ongizate psikologikoa bermatzeko.

ETXEBIZITZAREN ETA ENPLEGUAREN ESPARRUA

- Buru gaixotasuna duten gazteen **emantzipazioa eta bizitza independentea** laguntzeko progra-

mak sortzea, bereziki gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzat.

- **Egoitza-baliabideak**, etxebizitza babestuen eta abar gehiago sortzea buru osasun arazoak dituzten gazteentzat, beren adinera eta bizi-testuingurura egokitutakoak.
- Buru osasun arazoa duten gazteei enplegua eskaintzera bideratutako **lan-baliabideak** handitzea, bai eta enpresa pribatuetan sentsibilizazio lanak egitea ere.
- **Enplegu publikoan** plazak erreserbatzea desgaitasun psikosoziala (buru osasuneko arazoa) duten pertsonentzat, gazteek enplegu publikoa lor dezaten.
- **Kontziliario-neurriak** sustatzea, familiei laguntzeko ordaindutako lana eta buru osasuneko arazoak dituzten seme-alaben zaintza bateratzen.

ESPARRU JUDIZIALA

- Buru osasuneko arazoak dituzten eta delituzko ekintza bat egin duten adingabeen erantzukizun juridikoa zehazteko, **ebaluazio psikologikoak** hobetu eta zabaltzea proposatzen da.
- **Toxikoen kontsumoa** prebenitzeko baliabideak handitzea, gaixotasun mentalak ager ez daitezen, batez ere gizarte-egoera ahulean dauden gazteen artean.
- Sistema judizialek buru osasun arazoak dituzten haur eta gazteen arretarako baliabide publikoetara **bideratzeko prozesua** azkartzea.
- Kolektibo horri arreta emateko baliabideak gehitzea buru osasunaren sarean eta gizarte-zerbitzuetan, gaixotasun mentala duten adingabeen **judizializazioa saihesteko**.
- Pertsona erraztaile baten papera beharrezkoa da buru osasun arazoak dituzten gazte zaugarriari justiziara iristeko bidea ahalbidetu eta esparru horretan laguntzeko.

GIZARTE-ZERBITZUEN ESPARRUA

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta haren arreta-sare publikoak buru osasun arazoa duten gazteentzako **gizarte-zerbitzuen sarean dauden baliabideak zabaltzea behar dituzte**, eta, horrez gain, kolektiboari zuzendutako programak eta baliabideak babestu.

GIZARTE- ETA KOMUNITATE- ESPARRUA

- Erakundeen inplikazio handiagoa behar da **gizarte-sentsibilizazioan eta sentsibilizazio komunitarioan**, buru osasun arazoa duten pertsonen aurkako diskriminazioa eta estigma prebenitzeko.
- Oro har, beharrezkoa da buru osasun arazoa duten adingabeek, gazteek eta haien familiek dituzten **baliabideei buruzko informazioa** eskuratzeko aukera hobetzea.
- Funtsezkoa da familiei **informazio, orientazio eta akonpainamendu integraleko zerbitzuak** eskaintzea, besteak beste, gurasoei, anai-arrebei, aiton-amonei eta gainerako bizikideei.

BESTE ESPARRU BATZUK

- Interesgarria izan daiteke **gurasotasun positiboko** programak abian jartzea, buru osasun arazoak dituzten seme-alabak dauzkaten bikoteen **lotura afektiboa** zaintzen laguntzeko. Programa horiek prebentzio-eragina ere izan dezakete banantze edo haustura gatazkatsuen, adopzio familien eta abarren kasuetan buru osasun arazoak garatzea ekiditeko.
- **Harrera-egoitza** batean eta babesgabetasun- edo arrisku-egoeran dauden eta kalte psikologiko larria jasan edota jokabide-arazoak edo bestelakoak dituzten haur eta nerabeentzako laguntza handitu behar da.

HAURREN, NERABEEN, GAZTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BURU OSASUNA ZAINTEKO SISTEMAK KOORDINATZEKO AHOLKUAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

- Sistema guztiak inplikatzeko, buru osasuneko arazoaren prebentziorako, detekzio goiztiarrean eta esku-hartzean dauden ikuspegi guztiak integratuko dituen **lengoaia bateratua** har dezaten.
- Gizarte-, osasun- eta hezkuntza-arloetan **prebentzio-programak** bultzatu behar dira.
- Ikastetxeetan **arreta goiztiarreko** programak indartu egin behar dira buru osasunaren arretan, osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuen sistemen inplikazioarekin.
- Sistema guztiek eta buru osasun arazoa duten pertsonen eta haien senideen elkarteek informazioa eta praktika egokiak trukatzeko **topaguneak** sortzen laguntzea.

- Osasunaren eta gainerako sistemen arteko koordinazioa hobetu behar da, **familiei, profesionali eta haur eta gazteei** buru osasunaren arloan dauden **arreta-baliabideen berri emateko**.
- Buru osasun arazoa duten adingabeak eta gazteak baliabideetara **bideratzeko prozesua** hobeto koordinatu behar da, eta eraginkorragoa izan behar du.
- **Adin nagusitasunera** iristen direnean, osasun mentaleko arazoak dituzten gazteen deribazioa hobetu behar da, eta behar diren urratsak eta baliabideak aldeztatik planifikatu.
- Beharrezkoa da koordinazioa hobetzea osasunaren, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren eta abarren artean, eta buru osasun arazoa duten pertsonen eta senideen **elkarrean** artean.
- Koordinazio hobea behar da **psikiatriaren eta pediatriaren artean**, lehen mailako arretatik deribazioak eta esku-hartzeak hobetzeko.
- **Ebaluazio psikopedagogikoak** egiteko osasunaren eta hezkuntzaren arteko komunikazio- eta transmisio-bideak hobetu daitezke.
- Osasun- eta hezkuntza-sistemen artean **komunikazio handiagoa** egon behar da, buru osasunaren arreta ardatz hartuta; bi erakundeen arteko **lankidetzarako esparru-dokumentua** indartu behar da; esku-hartzean **irizpide komunak** hartu behar dira, eta buru eritasuna duten ikasleei laguntzeko **osasunaren eta hezkuntza-baliabide espezializatuen** arteko koordinazioa indartzen jarraitu behar da.
- Koordinazioa hobetu behar da **informazioaren komunikazio- eta transmisio-kanalak** bultzatzeari dagokionez, bizkorragoak eta egonkorragoak izan daitezkeen osasunaren eta udal- eta foru-mailako oinarritzko gizarte-zerbitzuen artean.
- Etxebizitzaren arloan, beharrezkoa da buru osasun arazoak dituzten gazteek **egoitza-baliabideetarako sarbidean** koordinazio hobea izatea.
- Koordinazio intentsiboko lana egin behar da Euskal Osasun Zerbitzuarekin eta adingabeen zentroetan dauden **tutoretzapeko haur eta nerabeekin**.

COVID-19 DELAKOAK BURU OSASUNeko ARAZOAK DITUZTEN HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ETA HAIEN FAMILIEN BURU OSASUNEAN DUEN ERAGINA

- Itxialdian buru osasun arazoa duten neska, mutil, nerabe eta gazteen ongizatea familien **gehiegizko ahaleginaren** mende egon da, baita urrunetik laguntzeko ahaleginak areagotu dituzten **gizarte-erakundeen euste-lanaren** mende ere.
- Talde horietako askorentzat, konfinamendua **atzerakada** handia izan da errekupeazio-prozesuetan.
- **Portaera-nahasmenduen eta adikzioen** eragina eta prebalentzia arindu egin da adingabeen eta gazteen artean. Hala ere, handitu egin dira **pantailak gehiegi erabiltzearen** inguruko mendekotasunak.
- **Elikadura-nahasmenduak** esponentzialki hazi dira, bereziki emakume nerabe eta gazteen artean.
- **Oldarkortasun-arazoan eta autokontrol-galeraren** eragina handitu egin da nerabeen eta gazteen artean.
- **Trauma osteko sintomatologia** duten pertsonen artean handitu egin dira buru osasun arazoak.
- Ikasgeletara itzultzeak **antsietate-arazoak** ekarri dizkie ikasle askori, eta itxialdiak, murrizketek, gizarte-harreman eta aisialdi jarduera ezak **depresioarekin** loturiko sintomatologia areagotu dute.
- Eskola-porrotarekin loturiko **antsietate larria** duten pertsonen kopurua handitu egin da, batez ere, batxilergoko bigarren maila egiten ari diren emakumeen artean.
- Nerabe eta gazteen artean **nahasmendu obsesibo-kompulsiboak** eragiten dituen sintomak areagotu egin dira.
- Zenbait nerabe **infantilizatu egin dira**, berdinen arteko gizarte-harremanak galtzearen ondorioz.
- Nerabe eta gazte asko **sozialki isolatu** dira.
- Hezkuntzaren jarraipena eta **eskolaz kanpoko lan-karga** estres-iturri izan dira buru osasun arazoa duten adingabeentzat eta haien familientzat.
- **Kontziliazio** ezaren ondorioz, itxialdian zehar familia askok gainezka egin dute buru gaixotasuna duen seme-alabari beharrezko arreta eskaintzerako orduan.
- Adingabeak ikastetxeekin **deskonektatzeak** ustekabeko ondorioak eragin ditzake epe labur eta ertainean.

ERANSKINAK

Elkarrizketetan eta eztabaida-taldeetan parte hartu dutenak:

ELKARRIZKETA SAKONETAKO PARTE-HARTZAILEAK, PROFILAREN ARABERA				
Izena	Kargua - Erakundea	Esparrua	Data	Kanala ¹
Elena Ayarza	Arartekoaren Haur eta Nerabeen Bulegoko zuzendaria	Haur eta nerabeen eskubideak	2020/11/30	Birtuala
Enrique López	Haur eta gazteen psikiatra, Aialako Buru Osasuneko Zentroan	Osasuna	2020/11/30	Birtuala
Vanesa Vadillo	ASAFESeko gerentea	Soziala (Buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen elkarte).	2020/11/30	Birtuala
Iker Arrizabalaga	AGIFESeko psikologoa	Soziala (Buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen elkarte).	2020/12/04	Birtuala
Izaskun Eskubi	Berritzegune Zentraleko Inklusibitate eta Hezkuntza Premia Berezien arloko arduraduna.	Hezkuntza	2020/12/14	Birtuala
Bárbara Gallastegui	Haur eta gazteen psikiatra, Haur eta Nerabeen Buru Osasuneko Zentroa Bilbo	Osasuna	2020/12/14	Birtuala *
Fran Martínez	Gizarte hezitzailea Aldaika Elkartean	Gizarte zerbitzuak	2020/12/15	Birtuala
Arantza Fernández	Haur eta Gazteen Ataleko burua, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	Osasuna	2020/12/16	Birtuala
Resu Casanova Arkaitz de la Cruz	AVIFESeko proiektuen, kalitatearen eta giza baliabideen arduraduna AVIFESeko psikologoa	Soziala (Buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen elkarte).	2020/12/17	Aurrez aurrekoa
José Motoso	Berritzagune Zentraleko Inklusibitate eta Hezkuntza Premia Berezien arloko arduraduna.	Hezkuntza	2020/12/21	Birtuala
Ana González Pinto	EHUko Psikiatriako katedraduna eta Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitziburua	Osasuna	2020/12/22	Birtuala*
Ana Belén Otero	Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria	Gizarte zerbitzuak	2020/12/22	Birtuala *

(1) Idatziz egindako bi elkarrizketak izartxo batekin (*) erakusten dira.

EZTABAIDA-TALDEETAKO PARTAIDEAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA		
	Familiak	Gazteak
Data	2020/12/15	2020/12/16
Bizkaia	5	6
Gipuzkoa	4	-
Araba	2	1
Gizonak	2	3
Emakumeak	9	4
Guztiak	11	7

Mintegian parte hartu dutenak:

Data: 2021/06/18

Ordua: 10-12h.

Formatua: Birtuala (Zoom)

IZEN-ABIZENAK	FILIAZIOA - KARGUA	JARDUERA EREMUA
Jesús Fernández Ibáñez	Osatuz programaren arduraduna (Bizkaiko Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoa)	Soziosanitarioa eta Hezkuntza
Begoña San Martín	Bilboko Adingabeen 1. Epaitegiko epailea	Justizia
Maite Echave Artola	Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte langilea	Udal Gizarte Zerbitzuak
Ana Gonzalez Pinto	EHUko Psikiatriako katedraduna eta Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitziburua	Osasuna
Pilar Valle Carrera	Gasteizko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako psikologoa	Udal Gizarte Zerbitzuak
Edurne Martínez	Arabako Ospitaleen, Etxeen eta Terapeutiko-Hezigarrien Hezkuntza Arretarako Lurralde Zentroko zuzendaria	Soziosanitarioa eta Hezkuntza
Elena Ayarza Ararteko	Arartekoaren Haur eta Nerabeen Bulegoko zuzendaria.	Giza Eskubideak
Mº José Cano	FEDEAFESeko gerentea	Asoziatiboa
Vanesa Vadillo	ASAFESeko gerentea	Asoziatiboa
Resu Casanova	Proiektuen, kalitatearen eta giza baliabideen arduraduna AVIFES	Asoziatiboa
Ruth Encinas	AGIFESeko gerentea	Asoziatiboa
Rocío Matías	ASASAMeko gerentea	Asoziatiboa

ESKERTZA:

FEDEAFESek, AGIFES, ASAFES, ASASAM eta AVIFES elkarteekin batera eta EDE Fundazioaren laguntza teknikoarekin egindako azterlan honi esker, buru osasun arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteen nahiz haien familien beharrianetan murgildu gara.

Eskerrak eman behar dizkiegu gure elkarteetako profesional guztiei ikerketan parte hartu izanagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektuaren fase ezberdinetan parte hartu duten arlo eta lurralde desberdinetako profesionaleri, eskainitako elkarrizketa sakonengatik eta mintegiengatik. Gainera, lan honetan parte hartu duten buru osasuneko arazoak dituzten gazteei eta haien senideei ere gure esker ona adierazi nahi diegu.

Asko dira osasun mentaleko arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteentzat antzeman ditugun beharrak; ditugun baliabideak beharrian horietan inbertitzea eskatzen dugu. Azterlan honek buru osasuneko arazoak dituzten haur, nerabe eta gazteei zuzendutako baliabideetan hobekuntzak identifikatzen laguntzea espero dugu.

Azkenik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza ekonomikoa eskertu nahi dugu, babesik gabe ezinezkoa izango zelako proiektu hau aurrera eramatea.

M^a Ángeles Arbaizagoitia Telleria

Fedeafeseko Presidentea.

Talde eragilea:

Ruth Encinas, Agifes.
Rocío Matías, Asasam.
Vanesa Vadillo, Asafes.
Resu Casanova, Avifes.
M^a José Cano, Fedeafes.

Laguntza teknikoa:

Aimar Rubio, Ede Fundazioa.
Ainara Canto, Ede Fundazioa.

